

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2011ko uztailaren 6a. VIII. urtea. 2.256. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Harkaitz dantza taldea, 12 urtez lanean

Tolosaldean indartsu aritu zen taldea 1974tik 1986ra bitarte; taldeko neskek San Joan bezperako suan dantzatu zuten lehen aldiz ◦6



Harkaitz taldea San Joan eguneko prozesioan. Josu Martinez, Patxi Bonilla eta Iñigo Aiestaran ikus daitezke irudian, besteren artean. HITZA

TolosandBlues jaialdiko antolatzaileak pozik jasotako erantzunarekin

Ikusle gehien Janiva Magnussen kontzertuak erakarri zituen larunbatean, Plaza Berrian ◦3

Amezketako etxebizitza tasatuetan izena emateko hilabete dago

2007ko baldintza berdinetan eskuratzeko epe hori jarri dute ◦5

Erromeriarako txartelak salgai jarri dituzte Bedaion ◦4



Bildu eta Aralarko ordezkariak udaletxeko bilkura aretoan. LURKIZU

Batzorde gutxiago izango dira udalean

Bilduk eta Aralarrek Tolosako Udalaren antolaketa eta herri programa adostu dute hurrengo lau urteetarako ◦2



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA



ziklo guztiak euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

MATRIKULA EPEA: Uztailaren 4tik 8ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mekanizazioa
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Informatika
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak
- Metal eraikuntzak

Orain ingeleraz ere bai!!

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra



Tolosako Bildu koalizioako eta Aralar alderdiko ordezkariak prentsaurrekoan. I. URKIZU

Bilduk eta Aralarrek legealdirako lotu duten akordioa aurkeztu dute

Tolosa Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean, UEMAn, sartzea proposatu dute

Asier Imaz

Bildu koalizioak eta Aralar alderdiak 2011-15 legealdirako herri programa eta udal antolaketa adostu dute. Bertan, besteak beste, batzorde kopurua murriztea erabaki dute. Neurri honekin, udal gobernu berriak «eraginkortasuna handitzea eta arrazionalizazioa» bultzatu nahi du. Akordioaren xehetasunak atzo aurkeztu zituzten prentsaurrean Bildu eta Aralarako ordezkariak.

Bildu eta Aralarren arabera, «Euskal Herria aldaketa garaian murgilduta dago: ziklo baten amaiera iritsi da eta berria abian da. Urte luzetako gatazka politikoa eta egun bizi dugun krisi ekonomikoa gainditzeko nahiak eta beharrak gizartearen arlo zabale-tara hedatu du aldaketa politikoa eta sozialaren aldeko aldarria».

Euskal Herria anitza dela ere aipatzen dute Aralarrek eta Bilduk, errespetatu beharra dagoela gaineratuz: «Gatazka politikoari

loturiko indarkeria adierazpen guztiak gainditu eta etorkizuna ezberdinen arteko elkarriketan, pertsona ororen eskubide guztien aitortzan eta herriaren hitzaren errespetuan oinarritzeko nahia adierazi dute euskal herritarrek».

Krisi ekonomikoaren harira, lau urte hauetako «kezka nagusietako bat» izango dela aurreratuz: «Euskal Herriak aldaketa soziala behar du, pertsonen behar-erak eta langileen eskubideak kapitalaren aurretik jartzeko garaia iritsi da».

Oinarriak eta lehenetsunak

Aralar eta Bilduko ordezkariak, Tolosako udal jardueraren oinarriak ondorengoak izango direla azaldu dute: «Gernikako akordioa; parte-hartzea; gardentasuna; parekidetasuna eta euskarren sustapena».

Azken puntu honetan, euskarren jakintza eta erabilera udal jardueraren oinarri izango dela azaldu dute, eta horretarako, «ezinbestekotzat» jotzen dute udalaren lan hizkuntza euskara izatea, «ahozkoa zein idatzia». Horrela, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) Tolosa sartzea proposatzen dute, eta haren irizpideak udal jardueraren «gida-lerro bilakatzea».

Lehenetsun artean, garapen ekonomikoa, zerbitzu publikoen babesa eta etxebizitza eskubidea agertzen dira akordioan.

Garapen ekonomikoari dagokionez, Tolosaldeko Mahai sozio-ekonomikoa sortzean proposatzen dute: «Tolosak, eta oro har Tolosaldea osoak, epe ertain eta luzeko hausnarketa estrategikoa behar du, eredu ekonomikoa berri eta orekatua helburu eta langileen eskubideak ardatz izango dituen». Horretarako, udal ordezkari berriek, Tolosaldeko itun sozio-ekonomikoa adostu nahi dute, «protagonismo politiko edota pertsonalak alboratuz».

Zerbitzu publikoiei babesa azaltzearekin batera, etxebizitza duina erabili ahal izateko eskubidea «paperetatik eta hitzetatik ekin-tzetara» eraman behar dela aldarrikatu dute. Zentzu horretan, duela bi urte onartutako Plan Orokorra «zaharkitua» gelditu dela esan dute Bildu eta Aralarako ordezkariak: «Higiezinen krisiak nabarmen utzi du hura idazteko

erabili ziren oinarrien ahultasuna. Ezinbesteko jotzen dugu aurreikusitako etxebizitza berrien kopurua berraztertzea eta murriztea eta hirigintza eredu zuhurra sustatzea, Tolosak duen lur-zoru baliagarri mugatua jardue- ra ekonomikoa garbietara eta ekipamenduetara bideratuz eta herrigune eredu trinkoa sustatu- z».

Udal antolaketa

Gobernu batzordea Ibai Iriarte, Lore Agirrek, Hasier de los Rios-ek, Edurne Mendiak eta Iñaki Irazabalbeitiak osatuko dute. Alkateordeak Lore Agirre, Hasier de los Rios eta Iñaki Irazabalbeitia izango dira, hurrenez hurren.

Liberazioei dagokionez, hiru izango dira. Aralarrek eta Bilduk azaldu dutenez, «Udalaren gas- tua urtean 134.000 eurokoa (+ gizar- te segurantzak) izango da. Oro- tara, liberatuen soldatetan %42 gutxituko da udalaren gastua».

Batzorde informatiboak ere 15 izatetik 11 izatera pasako dira.

↓ Batzordeak

2007-2011 LEGEALDIA

- **Tolosa 2015: Agenda 21, herritarren partaidetza eta ingurumena.** Olatz Peon (EAJ).
- **Hirigintza, obra, auzoak eta herri-mantenua.** Jokin Azkue (EAJ).
- **Kontuetarako batzorde berezia, ogasuna eta informazio gizartea.** Jokin Azkue (EAJ).
- **Giza baliabideak eta udal antolakuntza.** Jon Aldazabal (EAJ).
- **Erretengibel eta Alde Zaharren garapena eta eraberritzea.** Jon Aldazabal (EAJ).
- **Turismoa eta azokak.** Jose Miguel Gomez (EA)/Nerea Letamendia (EA).
- **Merkataritza eta garapen ekonomikoa.** Jokin Bildarratz (EAJ).
- **Udaltzaingoa eta herritarren arreta.** Jokin Bildarratz (EAJ).
- **Osasuna eta gizarte zerbitzuak.** Joxe Agustin Arrieta (EAJ).
- **Kultura eta jaiak.** Andoni Iturzaeta (EA/Hamaikabat).
- **Gazteria.** Joselu Andueza (EAJ).
- **Kirolak.** Oscar Renedo (PSE-EE).
- **Euskara eta hezkuntza.** Ainhoa Etxeberria (EAJ).
- **Berdintasuna.** Onintza Lasa (EA).
- **Lurrazpiko aparkalekuak.** Angel Yañez (PP).

2011-2015 LEGEALDIA

- **Parekidetasuna.** Miren Urkola (Bildu).
- **Gazteria eta migrazioa.** Mikel Arreseigor (Bildu).
- **Hirigintza, herri azpiegiturak eta auzoak (Alde zaharra barne).** Ibai Iriarte (Bildu).
- **Giza baliabideak, udal antolakuntza, herritarren arreta eta informazio gizartea.** Lore Agirre (Bildu).
- **Udaltzaingoa eta mugikortasuna.** Ibai Iriarte (Bildu).
- **Garapen ekonomikoa, merkataritza, turismoa eta ingurumena.** Hasier de los Rios (Bildu).
- **Kultura eta festak.** Edurne Mendia (Bildu).
- **Hizkuntza politika.** Iñaki Irazabalbeitia (Aralar).
- **Gizarte politikak eta osasuna.** Miren Urkola (Bildu).
- **Kontuetarako batzorde berezia eta ogasuna.** Lore Agirre (Bildu).
- **Kirola.** Pello Etxabe (Bildu).

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Eguzkitsua, 4 gela, 2 bainugela, komuna, egon- gela-jangela handia, sukaldea, 2

autorentzako garajea, txokoa eta jardina. Interesatuek deitu 678 26 76 57 telefono zenbakira.



Tolosand Blues jaialdia «ezin hobe eta zoragarria» izan da

Íñigo Martin antolatzaileetarikoa batek dioenez, «goi mailako kontzertuak entzun ahal izan dira»

Rebeka Calvo Musika

Zazpigarren Tolosand Blues jaialdia hasi aurretik ere, Íñigo Martin antolatzaileak argi zuen: uztaileko lehen asteburuan goi mailako blues musikariek hartuko zuten Tolosa.

Behin jaialdia bukatuta bihokada bete egin da, eta Tolosand Blues «ezin hobe eta zoragarria» izan da.

«Esperotakoa jaso dugu»

«Musikariengandik espero genuena jaso dugu, eta kontzertu bikainak eman dituzte. Ikusleriari dagokionez, ostiralean normal joan zen dena, eta larunbatean, Janiva Magnessen kontzertuan batez ere, oso ondo, jende asko bildu zen plaza Berrian», argitu du Martinek.

Hau guztia kontutan hartuta beraz, antolatzaileak ikuslegoari dagokionez balorazio «oso positiboa» egiten du. «Erantzun ona

jaso du jaialdiak», gaineratu du Martinek.

Plaza Berriaz gain, hala ere, blues musika bazter gehiagotara zabaldu da azken egunetan, Amatorren esate baterako, bigarren urtez egon da kontzertua. «The Boogalords taldekoak oso onak dira, eta kontzertu bikaina eskaini zuten, jende aldetik normal joan zen, baina oso kontzertu ona eskaini zuten», dio.

Argazkiak atera eta atera

Tolosan erabat egonkortuta dagoen jaialdia da jada, Tolosand Blues, eta ikusleriak bakarrik ez, musikariek ere oso gustuko dute jaialdia.

«Musikariek gure ahalegina asko baloratzen dute, egia da ere asko mimatzen ditugula; afaltzera eramaten ditugu, Tolosa erakutsi, TolosandBlues zer den agertu... Askok estimatzen dute hau. Janiva Magnessen taldeki-deak *incredible* errepikatzen zuten behin eta berriz. Afaltzera joaterakoan ere argazki asko atera zituzten, guztiari, parrilari eta guzti! Kantariak berak, gose asko ez zuela esan, eta hiru plater jan zituen... Gustura egon ziren, eta gu beraiekin gusturago, noski», gogoratu du.

Magnessek plazan bildutako guztiak jarri zituen dantzan, baita lehenlerroan, adi-adi, begiratu haurrak ere. Hori larunbatean izan zen, baina ostiralean Sax Gordon eta Lluís Coloma ikusteko aukera izan zen.

«Sax Gordonen emanaldia ikuskizun hutsa izan zen, indar asko du, eta oso kontzertu ona eskaini zuen. Saxo-jotzaileak zeuden han, eta beraiek ere esan zioten ikeragarria dela», azaldu du antolatzaileak.

Eta ez da gutxiagorako. Tolosand Blues jaialdian, urtero, mundu mailako izarrak izaten dira, «punta-puntako artistak», eta beraz, kontzertu bikainak eskaini ohi dituzte.

Horretarako, ordea, lan asko egin behar da. Martinek azaldu duenez, urrian hasten dira dena prestatzen, batzutan baita lehenago ere. Oraintxe «aurtengoa disfrutatzen» ari dira oraindik antolatzaileak, baina jada, zeharka bada ere, hasi dira 2012. urteko TolosandBlues jaialdia lotzen.

«Izenik ezin dut aipatu, baina hitz egiten hasi gara; hitz egin bakarrik egin dugu, ez dago ezertuta noski, baina hasi gara zerbaitetan», aurreratu du Íñigo Martin antolatzaileak.



Goran Sax Gordon ostiraleko emanaldiko une batean, eta beheran larunbateko Janiva Magnessen kontzertua. HITZA

Alde Zaharrea ere sanferminak ospatuko dituzte

12:00etan botako dute suziria plaza Berrian; sanferminak izaki entzierroa ere egingo dute

R. C. Jaiak

Biharko San Fermin eguna ospatuko dute Alde Zaharrea urteroko moduan. Oraingoan ere haurrak izango dira San Fermin Txiki

kiren protagonista nagusiak. Jai Alde Zaharreko bizilagunek antolatzen dute urtero. Antolatutako ekitaldi guztiak plaza Berrian izango dira, eta noski, suziriak emango die hasiera.

Txupinazoa, 12:00etan

12:00etan botako dute plazan dagoen kioskotik, eta ondoren, entzierro txikia egingo dute Alde Zaharrea zehar.

Honekin batera buruhandiak izango dira jai giroa zabaltzen, eta

entzierroa eta gero, haur jolasak ere egingo dituzte. Ondoren, txokolate jatea egingo dute, eta bukatzeko, nola ez, *Pobre demí* abestia kantatuko dute.

Antolatzaileek deia egin nahi dute bertaratzen direnek, haurrak izan ala helduak izan, zuriz jantzita eta zapi zein gerriko gorriarekin joateko. Era berean, herriko ludoteka eta haur guztiei egiten diete dei Alde Zaharreko sanfermin txiki hauetan parte hartzera.



Zuriz eta gorri jantzita joateko eskatu dute antolatzaileek. I. TERRADILLOS

Hilberriak →

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



XARI ZINKUNEGI SOROA

Joan zara baina
gure artean
izango zaitugu beti

Ioritz eta Nagoreren kuadrila

LIZARTZAN, 2011ko uztailaren 6an

Santamañako XI. Kros Igoeran marka berriak egiteko aukera izango dute

Igandean 10:30ean emango zaio hasiera lasterketari; alde zuzenetik izena emateko aukera dago

Eneritz Maiz Asteasu

Asteasuarrek San Pedro Jaiak pasa badituzte ere, jarraian Santamañako jaiak izango dituzte. Jaiak hasiera emateko Santamañako XI. Kros Igoera izango da uztailaren 10ean, igandean. 10:30ean izango da irteera, eta 7 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Bi itzuli herrian zehar eman osten, Santamañarako igoera egin beharko dute.

Izena ematea irteera baino ordu lehenago irekiko dute herriko plazan, edo alde zuzenetik 943 69 68 96 - 943 69 34 00 telefono



X. Santamañako Igoeran parte hartu zuen emakumeetako bat. SARA GOMEZ

zenbakietara deituz eman daitezke.

Orain arteko denborarik onenak, nesketan, Aintzane Argaiak du 33 minutu eta 21 segundoko denbora eginez, eta gizonetakoetan berriz Iban Sanchezena da markarik onena, erlojua 25 minutu eta 50 segundotan geldituz.

Saria lehenaristen diren bost emakumeek eta gizonen izango dute: lehenek 150 euro, bigarrenek 90 euro, hirugarrenek 60 euro, laugarrenek 30 euro eta bosgarrenek 20 euro jasoko dituzte.

Lasterketa bukatzean, parte hartzaileen artean materiala zozketatuko dute.

VIII. Transernio Pilota Txapelketa ostiralean 18:30ean hasiko da

Alebin, benjamin, infantil eta kadete mailako 32 bikoteek parte hartuko dute txapelketan

E. Maiz Aduna

VIII. Transernio Pilota Txapelketa hasiko da ostiralean Adunako pilotalekuan. Zortzigarren urtez jarraian, Adunako pilota eskolak, pilotari gazteei aukera emateko txapelketa antolatuko du.

Lau mailatan banatuko dituzte eta bakoitzeko zortzi bikote ariko dira. Guztira 32 bikoteek parte hartuko dute. Alebinak, benjaminak, infantilak eta kadeteak izango dira. Andoain, Añorga, Hernani, Amezketa, Altzo-Alegi, Villabona, Bidegoian, Asteasu edota Adunako pilotari gazteak izango dira parte hartuko dutenak. Par-

tidak ostiralean, larunbatetan eta igandetan jokatuko dira. Ostiralean 18:30ean hasiko dira, eta larunbatetan eta igandetan 10:30ean.

Ostiralean, hilaren 8an, alebinen partida bat jokatuko da. Kasu honetan, Adunako bikotea Altzo-Alegiren aurka ariko da. Larunbatean, hilaren 9an, lau partida jokatuko dituzte. Bi benjaminen eta beste bi kadeteek. Kadeteen lehen partida Villabona eta Añorgaren artekoa izango da. Bigarrenean berriz, Asteasu eta Bidegoianen aurka ariko da. Kadeteetan berriz, Altzo-Alegi bikotea, Andoainen aurka, eta Amezketaok Hernanikoien aurka izango dira.

Hauet finalaurdenak izango dira, eta baita hilaren 15, 16 eta 17an jokatuko direnak ere. Jarraian finalerdia jokatuko dituzte eta finaleko partidak abuztuaren 6ean izango dira.

Falta diren gazteen omenez ibilaldia eta erromeria izango dira

Larunbatean festa giroa izango da Bedaion; erromerian parte hartu nahi duenak txartela erosi beharko du

E. Maiz Bedaio

Bedaioitarrek ez dute atsendenik hartzen, eta asteburu honetan ere festa giroa izango du gozatu nahi duen guztiak. Larunbatean, mendi ibilaldi bat egingo dute, «gure artean ez dauden gazteen omenez». Ondoren, San Fermin jai giroa Bedaion jarri nahirik 20:30etik aurrera erromeria izango da Abaetxe jatetxeko lorategian.



Ibilaldiaren ostean, tripa betetzea tokatzen da. HITZA

Sagardotegi menua jarriko da, nahi duenarentzat, eta sagardoa txiritik dastatzeko aukera izango da. Nola ez, trikitilariak eta bertsolariak ez dira faltako. Erromeriarako txartelak jarri dituzte sal-

gai. Txartelak eskuratu nahi dituenak, 630 11 42 15 (Izaskun) telefono zenbakira deitu beharko du.

Antolatzaileek denak gombidatu nahi dituzte, ibilaldian eta erromerian parte hartuzera.

HITZA Txapelketako jubenilen partidak jokatuko dira, gaur

18:30ean Beotibarren jokatuko dira jubenil mailako hiru partidak; astelehenean nagusien mailakoak jokatuko dira

E. Maiz

HITZA Pilota Txapelketako jubenil mailako lehen kanporaketak jokatuko dira gaur 18:30etik aurrera Beotibarren. Astelehenean berriz, nagusien mailakoak jokatuko dira.

Gaurko lehen partida Nazabal eta Beola bikoteak, Mendi eta Apeztegiaren aurka jokatuko duena izango da. Ondoren, Arizti-

muño eta Etxebert, Olano eta Barandiaranen aurka eta bukatzeko, Zelaia eta Iribarren bikotea, Maiza eta Zabalaren artekoa izango da. Eta maila honetako laugarren partida, Agirre-Elustondo, Labaka-Unanuaren aurkako ostiralean jokatuko dute. Irabazleek, hilaren 13an jokatuko beharko dute berriz.

Nagusien mailako partidek emaitza hauek utzi zituzten: Artola-Irustak 22, Sukia-Arratibelek 19; I. Urbietak-Labakak 9, Etxaniz-Biainek 22; Perez-Zubirik 22, I. Jauregi-Esnaolak 12 eta Uriona-Otaegik 16, Urretabizkaia-Aizpuru 22. Partida hauetako irabazleek, hilaren 11an jokatuko dituzte hurrengo partidak.



Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI eta SULABEA

24 H..

943 694 873



www.funerariavascongada.com



Etxebizitza tasatuak eraikiko diren lur eremua. I. GARCIA

2007ko baldintzetan, hilabetez izena eman daiteke etxebizitza tasatuetan

Ez badute behar adinekin izena ematen, sustatzaileek eskatu bezala, etxebizitzaren prezioa igo egingo da

Imanol Garcia Amezketak

Amezketako Udaltzatzaileek egin berri duen osoko bilkuran, Larraitzeko bidean eraikiko diren hamar udal etxebizitza tasatuen zozketa arautzeko baldintza agiria onartu du. 2007an onartu ziren baldintza berdinak dira eta hila-beteko epea izango dute interesatuek izena eman ahal izateko udal-eremuan.

Epe horretatik aurrera, eta ez badute behar adinekin izena ematen, baldintza agiria aldatu egingo da eta etxebizitzaren sustatzaileek eskatutako igoera aplikatuko da. Horrela, etxebizitza garestienak 15.000 euroko igoera

izango dute, eta besteak proportzioan igoiko dira.

Osoko bilkura horretan ere alkatearen ebazpenen berri eman zen. Besteak beste, Jose Maria Sarasola alkateorde izendatzea eta Satur Zabala Amezketako Udaleko gordailuzain izendatzea.

Beste izendapen batzuk ere egin ziren. Horrela, hirigintza Iñaki Amundarainek hartu du; kultura eta web orria, Yolanda Gorostidik; Gipuzkoako Urak eta UEMA, Iñaki Armendarizek; nekazaritza eta Tolomendi, Ainhoa Zuriarrainek; Enirio-Aralar Mankomunitatea, Iñaki Amundarainek eta Ainhoa Zuriarrainek; gizarte zerbitzuak, zaborrak (Tolosaldeko Mankomunitatea), eskola eta haur eskola, Satur Zabala; Tolosaldea Garatzen, Iñaki Amundarainek eta Jose Maria Sarasolak; eta Zazpi-Itturri zentrala, Jose Antonio Artolak.

Beste puntu bat Andatza Eraikuntzak S.L.-k Amezketako Uda-

larentzat eginiko ur sare berria eta zoladura berria proiektua egiterakoan jarritako bermea itzultzea zen. Obra lanak jadanik urte betez amaituta daudela kontuan hartuta, eta inongo arazorik ez dela izan obren eraginengatik, udalak 7.000 euroko bermea itzultzea erabaki zuen.

Udaleku irekiak

Batzordeei buruzko informazio ematean, aurtengo udaleku irekien berri eman zen osoko bilkuran. Hala, 59 haur eta gaztetxoek izena eman dute; 6 begirale hartu dira lan horretarako, bi herrikoak eta lau kanpokoak. Aurreko ostiralean hasi ziren. Dokumentu bateratu bat egin dute beste herri txiki batzuen artean udalekuen inguruan eta aurten begiraleei programa eta memoria bat egitea eskatu zaie. Bestalde, gurasoei galdeketa bat luzatuko zaie berriak ere balorazio bat egin dezaten.

PPk Lizartzan Espainiako bandera berrezartzea eskatu du

Soraya Saenz de Santamariak diputatu biltzarrean egin zion eskaria gobernuari

I. Urkizu Lizartza

Lizartzako udaletxeko balioan Espainiako bandera berrezartzeko agindua eman dezala eskatu dio PPk Espainiako Gobernuari.

Pasa den maiatzaren 22ko hauteskunde ondoan, Bilduko udalbatza berriak bandera kendu zuen balioetik. Honen ondoren, Diputatu biltzarrean alderdi popularreko bozeramalea den Soraya Saenz de Santamariak, gobernuari legea betearazteko eskatu dio.

Lizartzarrek, Espainiako banderaren auzia herri batzar baten bidez erabakitzeko aukera azaldu dute, eta Saenz de Santamariak legedia betetzearan erabakia herriararen esku ezin dela utzi nabarmendu du prentsaurreko batean.

Honen harira, nazioaren egoez buruzko eztabaidan, UPN, UPyD eta PP alderdiek Bilduren jarduna gertu-gertutik jarraitzeko eskaera burutu zuten. Saenz de Santamariak, banderarena Bildu gertutik jarraitzeko beste arrazoi bat dela esan du, koalizioa ilegalizatzeko bidean.

PSE-EEko Jose Inazio Asensiok mozioa aurkeztuko du udalean

Juan Mari Jauregiren monolitoak jasotako eraso gaitzestea eskatuko dio Bildu koalizioari

I. Urkizu Tolosa

Jose Inazio Asensiok, Tolosako Udaleko PSE-EEko zinegotziak, Juan Mari Jauregiren monolitoari egindako eraso gaitzesteko mozioa aurkeztuko du udalean. Era berean, Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere mozio bera aurkezteko asmoa du Asensiok.

Joan den astean, Jauregiren omenez Legorretan dagoen monolitoa erasotu zuten, eta Asensiok «kemenez» gaitzetsi du hau. Era berean, «elkartasuna» adierazi die monolitoa jarri zuten lagunei eta Jauregiren alargunari, Maixabel Lasari.

Tolosako alkatea den Ibai Iriartek, eta Martin Garitano ahaldu nagusiak, monolitoari egindako eraso «argi eta garbi» gaitzestea nahi du; hala egiten ez badute, «herriarrek engainatu» dituztela dio. Bide honetan, Bilduk eraso hau gaitzestea giltza dela nabarmendu du Asensiok, eta koalizioa partaideek herriarrek eman dieten «ardura historiko handia ETArekin amaitzeko eta bake bidean jartzeko» erabili beharko lukekela uste du.

→ Laburrak

Ixa Iglesias da San Joan zozketako irabazlea

TOLOSA › Tolosa & Co elkarteak antolatutako duen San Joan sariaren zozketaren irabazlea Ixa Iglesias Urkia da. 2.000 euroko balioa duen bidaia da jasoko duen saria.

Bi filma ikusgai aste honetan Leidor aretoan

TOLOSA › Leidor aretoan bihar, osteguna, *Inside Job* filma emango dute Zine Forumean. 19:15ean eta 21:45ean izango dira saioak, eta jatorrizko bertsiotan emango dira. Asteburuan *Pequeñas mentiras sin importancia* filma emango dute. Igandean, 19:30ean, eta astelehenean, ikuslearen eguna, 20:30ean.

Esklerosi anizkoitzaren elkartearen alde, igerian

TOLOSA › Esklerosi anizkoitzaren elkarteak antolatutako duen *Busti Zaitzez* kanpainaren barruan, Carlos Peña igerilari tolosarra 24 orduz ariko da igerian Ori ibaian. Peña Zerkausi azpiko ontziratiketik Berazubi zubiaren buiraino itzulika ariko da igerian. Hilaren 15ean, ostirala, 13:00etan hasiko du proba igerilariak.

Euskal Herriko ekoizlea zara?
Bertan sortutako edo ekoiztutako produktuak saltzen dituzu?

Hemen duzu zure produktuak saltzeko tokia! 902-82 05 07

plaza@euskalherrikoplaza.com



Euskal Herriko produktuak,
ekoizlearen biltegirik
zure etxera

www.euskalherriko
plaza.com

Joxemi Saizar Dantza

Tolosaldean dozena bat urtez indar handiz lanean aritu zen dantzari talde bat dakargu gaur orrialde hauetara: Harkaitz. 1974tik 1986ra, gutxi gorabehera, hainbat dantza ikasi, emanaldiak eskaini Euskal Herri osoan eta atzerrian eta hainbat ikastetxe eta herritan ikastaroak ematen aritu zen. Gaur egun desagertuta bada ere, talde honen ekarpena gogora ekartzeak merezi du.

Udaberri dantzari taldearen aktibitatea eten zenean sortu zuten Harkaitz talde hartako bi kidek, Maribi Iturriozek eta Mintxo Montillak. «Holandako bidaatik etorri eta taldea ia desegin zen, ez zegoen aurrera jarraitzeko asmorik. Guk jarraitzeko gogoan genuen eta Harkaitz sortu genuen. Gaztetxoak ginen eta zerotik hasi behar izan genuen, astean 25 pezeta jarritz taldekide bakoitzak», dio Iturriozek. Ahoz aho lagunak eta ingurukoak animatu eta dantzak irakasten hasi ziren bi sortzaileak. Eskolapioen lokaletan hasi zirela gogoratzen dute biek, eta Gorosabel eta San Jose ikastetxetik pasatu ondoren, Laskorain Ikastolako gimnasioa izan zuten entsegu lekua, Sakramentinoetan.

Oraindik dantzari talde bat izan gabe, lehen emanaldirako deia jaso zuten: Ozaetan (Araba) San Bernardo eskaut taldearen kanpamenduan. Autoen fokuen argiarekin dantzatu zutela gogoratzen dute, zituzten jantzi apurrekin, musikariak ere nolabait lortuta...

Sanjoanetako suan dantzan

Tolosan egindako lehen jaialdia San Joan bezperako suan, Santa Maria plazan, izan zen. «Lehen aldiz neskek atera ziren ginen San Joan suaren jaialdian. Ordu arte, Udaberri, mutilak bakarrik ateratzen ziren Gipuzkoako dantzak eginez», aipatzen du Iturriozek. Udaberriko zaharrek egindako *Donibane* dantza ere eskaini zuten. Urte askotan parte hartu zuten jaialdi horretan.

Eta San Joan eguneko prozesioan (hemen ere neskek atera ziren lehen aldiz, dantza egin gabe), *Bordondantzan* eta *Aurreskuan* ere parte hartu zuten, 1979an Udaberri taldea *Bordondantzari* buruzko ikerketa egin, eta berriz dantza egiten hasi zen arte. Aurreskua Zumardi Txikian egin zen urtean adibidez, barianteko lanak zirela medio, Harkaitz aritu zen dantzan.

Udaberriren berpizkunde hau Harkaitzen zatiketa baten ondorioa dela seinalatu behar da. Taldekide erdiak gelditu ziren, gutxi gorabehera, eta haurren taldekoekin sendotu behar izan zuten taldea.

Herriko jaietako emanaldi horiei esker, Udalaren diru laguntza



Harkaitz dantza taldea Beotibar pilotalekuan egindako emanaldi batean. HITZA

Harkaitz dantza taldeak euskal dantzak ikasi, emanaldiak eskaini eta ikastaro ugari eman zituen Tolosaldean, Euskal Herrian eta kanpoan 1974tik 1986 arte.

Dozena bat urte folklorea landuz

lortu zuen Harkaitzek eta jantzi eta material berriak lortu ahal izan zituen dantza berriak prestatzeko.

«Urtero dantza berriren bat prestatzen genuen eta San Joan bezperako jaialdian aurkezten genuen herrian», dio Montillak. Bizkaiko, Nafarroako eta Arabako dantzak, *Luzaide*, *San Migel*, *Amaiaren Ezpatadantza*, *Kaxaranka*, *Suletinoa*, *Larrain dantza*, *Segadorak*, *Balsa*, *Sardinerak*... zerrenda luzea osatu arte. Nesken eta mutilen dantzak egiten zituzten eta baita mistoak

San Joan bezperako suan lehen aldiz neskek dantzan jarri zituzten Harkaitzek

«Urtero dantza berriren bat prestatzen genuen», dio Mintxo Montillak

ere. Beste talde edo dantzari batzuegana jotzen zuten dantza hauek ikasteko: Lasarteko Erketz, Donostiako Argia, Jon Arriola, Antxon Agirrezabala, Tomas Arriola... Dantzari, musikari eta laguntzaileen artean, 60 lagun biltzera iritsi ziren urte askotan zehar.

Dozena urte horretan emanaldi ugari izan zituzten Tolosaldean, Euskal Herrian eta atzerrian. Hiruzpalau urtetan Beotibar pilotalekuan jaialdi berezia eskaini zuten. Tolosaren 725. urteurrenaren egindakoa aipatu behar da bereziki. Udal korporazioaren kapak erabili zituzten orduan *Bordondantza* egiteko. Herriko auzoetan (Izaskun, Berazubi, Amartoz, Belate, San Esteban, Arramele), Tolosaldean (Ibarra, Anoeta, Villabona, Berrobi, Belautza, Bidania, Leaburu, Zizurkil), Euskal Herrian (Andoain, Lasarte, Irun, Oiartzun, Donostia, Bilbo, Gernika, Erandio, Biarritz, Hendaia, Bera, Betelu) eta kanpoan (Malaga, Paris, Mona-

ko) ikus ahal izan zituzten bere saioak. Pariseko emanaldia, Tolosako Eresoinka abesbatzak Bondoufle herriarekin egindako truketik sortu zen. Breñañako La Montagnarde taldearekin trukea ere burutu zuten.

Ez dira ahaztu behar hainbat eta hainbat ezkontzatan egindakoak, diru sarrera garrantzitsuenak.

330 ikasle hainbat tokitan

Harkaitzek landu zuen beste esparru garrantzitsu bat dantza irakaskuntzarena izan zen. «Gure lehen xedea Tolosaldeko ahalik eta jende gehienari dantzarako grina helaraztea zen. Ostiraletan gure saioa izaten ge-

«Dantza egiteko, entseatzeko eta irakasteko bizi ginen», dio Maribi Iturriozek

«Ikurrin dantzaren bertsio berria egin eta Beotibar txaloz lehertu zen», dio Martinezek

nuen, larunbat goizetan materiala eta arropa erreparatu, 16:00etatik 19:00etara gure entsegua eta gero Anoetara joaten ginen erakustera eta igande goizean ere entseatzeko genuen. Horretarako bizi ginen», gogoratzen du Maribi Iturriozek. Ikaztegiatan eta Ibarra ere aritzen ziren eta Tolosako Laskorain, Gainberri, Jesusen Alabak eta Inmakulada ikastetxeetan ere. Eta Harkaitzen barruan, haur taldea ere izan zuten, bere entsegu eta emanaldiekin. Zenbait unetan 330 ikasle baino gehiagoren ardura izatera iritsi ziren. Adibidez, Abraham Olanoko eta Edurne Pasaban kirolari ospetsuak izan ziren ikasle horietako batzuk. Taldekide izan ziren beste pertsonai ospetsuak Jokin Bildarratz alkate ohia eta Kike Amonarriz eta Edurne Ormazabal telebista aurkezleak dira.

Anoetan gainera herriko taldeak Harkaitz izena mantendu du urtetan zehar, Tolosako desagertu eta gero ere.

Bitxikerien artean, 1983ko Ibarako San Bartolome jaietan dantza emanaldia utzi behar izan zutela gogoratzen dute, euri jasa zela medio. Hurrengo egunean uholde famatuak izan ziren. Emanaldirik hunkigarrienetako gisa, Izaskunen hil zuten Fran Aldanondo *Ondarru*-ren omenaldia gogoratzen du Josu Martinez kideak. Beotibarren izan zena: «*Ikurrin dantzaren bertsio berria egin genuen*, zintak txirikordatu eta frontoia txaloz lehertu egin zen. Hurrengo urtean Ondarroan egin behar zioten omenaldian parte hartzeko esan ziguten, baina ezin izan genuen joan». Kontuan izan, ikurrina legeztatu gabeko urteak zirela. Hori zela eta, Miguel Belloso taldekideak ikurrina berezia diseinatu zien, fondo gorria eta gurutze zuriarekin, aspa berdeen ordez lauburu urdina zuena. «Bestearen faltan, hunkigarria zen. Tolosan kalejira batean estreinatu genuen eta, zabaldu arte, ikurrina zela uste zuten jendeak», diote sortzaileek.

Indarra galtzen joan zen taldea eta 1986-87 inguruan desagertu zen. Dantzazaleak izanik, jarraitzen dute nolabait mundu hori. «Oraindik Santa Ageda bezperan elkartzen gara kantatzeko eta tartean dantza ere egiten dugu. Eta Inauterietan dantzan oinarritutako konpartsa bat ateratzen dugu taldekoak izandako batzuk beste lagun batzuekin batera», dio Montillak.



Breñañako La Montagnarde taldearekin trukea egin zuten. HITZA

Alkateen elkarrizketak ▶

Aritz Mujika ◊ Berastegiko alkatea

«Alkatetza erronka polita dela uste dut»**Maier Ugartemendia** Berastegi

Gaztea izan arren lanerako gogo dago Aritz Mujika (Bildu), Berastegiko alkatea. Herritarrez osutako zerrenda bakarra izan zen Bildurena, eta herritarren babes handia jaso zuten.

Hain gaztea izanda, nola hartu zenuen alkate izateko erabakia?

Herritik talde bat atera beharra zegoen. Guk Bildun aurkeztea pentsatu genuen, eta taldea osatzeko nahikoa lan izan genuen. Lehenengo ere norbaitek jarri beharra zeukan, eta neroni jartzea pentsatu genuen. Erronka polita dela iruditzen zait. Gauzak ondo eginen saiatu nahi dut, ea zer moduz ateratzen diren. Gogoia behintzat ez zaigu falta.

Hauteskundeetan aurkeztutako zerrendetatik herritarrez osatutako bakarra izan zineten; eta, hala ere babes handia jaso zenuen.

Bai. Bakarrik ginela kontutan hartuta espero genuen gu atera-

ko ginela udaletxean. Baina, ez genuen uste horrenbeste boto aterako genituenik. Aurreko urteetan bi zerrenda aurkezten ziren, eta biak gehituta adina boto izan ziren. Beraz, alde horretatik, espero ez genuen ezusteko atsegin bat izan zen.

Aurreko udaletxeak abian zituen proiektuekin jarraitzeko asmoa al duzue?

Gurea ez da izango, moztu eta berriro hasieratik hasia. Udaletxean egon ziren guztiakin oso harreman ona dugu. Aurretik zegoen talde baten jarraipena ere bagara. Talde horrek isilpeko lana egin zuela esan daiteke. Gu beraien proiektuei jarraipena eta bukatzea ematen saiatuko gara.

Zer egoeratan aurkitu duzue udala?

Egoera onean. Egia esan, aurretik bagenekin zer egoeratan zegoen; lehen esan dudana bezala, besteekin harreman ona genuen, eta ez digute ezer gorde. Espero genuen bezala aurkitu dugu.

Zein izango dira datozen lau urte hauetan zuen lanaren ildo nagusiak?

Aurrekoek hasita dauzkaten proiektuak amaitzea izango da, hasiera batean pentsatuta duguna. Plan orokorra, udaletxea eta etxebizitza tasatuak. Horiekin hasiko gara, eta horiek uste baino lehenago bukatzen baditugu, pentsatuko dugu zeini heldu.

Plan orokorra zer egoeratan aurkitzen da gaur egun?

Diputazioak traba batzuk jarri zizkion lehengo proposamenari. Ordutik, hango teknikoak eta hemengoak elkarlanean aritu dira, ezadostasun horiei konponbidea emateko. Orain, guk onartu behar dugu, eta gero Eusko Jaurlaritzara eta Diputaziora bidali behar da beraien onartzeko.

Eta onartuko dituzte?

Lehen Eusko Jaurlaritzak onartu zituen eta Diputazioak bota zituen atzera. Orain Diputazioko teknikoak eta hemengo elka-



M. UGARTEMENDIA

rrekin lanean arituta, onartzea espero dugu. Hala ere, aldaketa txiki eta gutxi batzuk soilik izango dira.

Eta, udaletxearen berritze lanak zer moduz doaz?

Ondo. 800.000 euroko diru laguntza eman zigun Diputazioak. Eta, duela bi aste beste milioi bat euroko mailegua sinatu genuen Kutxarekin. Dirua badaukagu proiektua egiteko. Orain, Etorlur, Diputazioko enpresak, proiektua hona bidaltzea, onespina ematea eta udaletxea hustea falta da. Gero beraien hasiko dira udaletxea berritzeko lanekin.

Zer aldaketa egingo dituzte?

Estruktura eta teilatua berdin-

berdin mantenduko da. Proiektua ez da iritsi oraindik udaletxera. Baina, oraingoz lehenengo bi solairuak egiteko aurrekontua dugu. Gainerakoa denborarekin eta beharren arabera betetzeko asmoa dugu.

Zer moduz egokitu zarete lan berri- ra?

Garrantzitsua izan da, aurreko udal taldearekin daukagun harreman ona, batik bat EAeko zinegotziekin. Alkatea eta bere taldea ere beti laguntzeko prest azaldu dira. Beti hartzen dute denbora guri laguntzeko. Esperimentzia hartu egin beharko dugu, baina, aurreko taldearekin haustura ez gotea lagungarria da.

Ur Algero ◊ Aresoko alkatea

«Ematen ditugun pausoak herriaren izaera mantenduz eman nahi ditugu»**M. Ugartemendia** Areso

Aurreko legegaldian ordezeko bezala zerrendan egon arren, alkate kargua hartzea guttiz berria izan da Ur Algerorentzat (Areso Erakiz). Orokorrean gazteek osatzen duten taldeko buru da, eta «gogoz» daudela adierazi du.

Zer sentitu zenuen alkate kargua hartu zenuenean?

Alde batetik, ardura dezente; eta, bestetik arrarora egin zitzaidan. Nik ez nuen asmorik alkate izateko orain dela gutxi arte, eta oraindik ez naiz ohitu.

Talde gaztea osatu duzue.

Bai. Gehienak 30 urtefik behera-koak gara. Baina, tartean badago

baten bat helduagoa dena, eta beste ikuspegi bat eta esperientzia eman diezagukeena. Horrek, alde batetik, esperientzia gutxiago ematen digu, baina baita gogo gehiago ere.

Zerrenda bakarra izan arren, babes handia jaso zenuen.

Egia esan, espero genuena baino gehiago. Nik, behintzat, pentsatzen nuen jendea nahiko lasai egongo zela. Azkenean, ziurra zen, talde bakarra ginen, eta ez zen deus jokoan. Nahiko emaitza polita jaso genuen. Herritarren gehiengoak bozkatu zuen; gainera, babes emateko bozkatu zuen eta eskertzen da. Orain erantzun egin beharko da.



M. UGARTEMENDIA

Aurten nahiko talde berria osatu duzue, ezta?

la guztiak berriak gara, baina, orain arte alkate izan den Mikel Baraibarrek gurekin jarraitzen du, orain ardura gutxiagorekin, baina bat nekatuta zegoelako. Baraibarrek esperientzia dezente du, eta berak taldeari ekarpen hori egiten dio. Modu batera edo bestera guztiak inplikaturik daude herrian.

Hurrengo lau urteetan zein izango dira zuen proiektuak?

Alde batetik, orain arte martxan jarri dituztenak, baina, erabat bukatu gabe gelditu direnak daude;

urte hauetan behin-betikoak izateko lotu nahi ditugu. Batez ere etxebizitzaren kontua dago, gero orain dela urte batzuk egin zen poligonoari ere erabilera bat eman behar zaio... Alde horretatik, bide-pixka bat nekatuta zegoelako. Baraibarrek esperientzia dezente du, eta berak taldeari ekarpen hori egiten dio. Modu batera edo bestera guztiak inplikaturik daude herrian.

raren bat bilatu beharko da. Hori azpiegiturari dagokionez; eta gero funtzionamendu mailan, salto bat emateko asmoa daukagu, herritarren inplikazioa eta parte hartzea handiago izateko, zabalago izan dadin. Aurrerapauso asko eman dira azken urteetan honen inguruan, baina, horretan sakondu nahi dugu.

Eta, hori batzaren bidez antolatuko zenukete?

Urtean gutxienez bi batzar egitea, gure konprometua da. Eta, gai politoren bat badago behar direnak egingo ditugu. Horrez gain, aurrekontuak osatzerako garaian, adibidez, ahalik eta jende gehienarekin kontatzea gustatuko litzaziguke. Izan ere, babes badaukagu, baina, babes paper batean daukagu. Zer egin eta zer ez egin denen artean erabaki beharko genuke.

Gehitu nahi duzun zerbaite...

Orain arte jende asko aritu da lanean, baina gu gurtu ginen beste generazio batek saltua eman behar zuelako. Ematen ditugun pausoak herriaren izaera mantenduz eman nahi ditugu. Nahi duguna herri euskalduna izatea da, herritarrak gustura bizi daitezkeen herria, herritarrak bertan bizitzen gera daitezkeena. Azken finean, bizitzeko moduko herri bat izatea nahi dugu.



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	16°
HOTZENA	10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizalde: 687 410 118. leizalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



ESKOLAK ATZEAN UTZITA, LUDOTEKEN TXANDA

Bukatu da ikasturtea, txikientzat behintzat, eta eskolak eta ikasliburuak atzean utzita, aisialdi garaia da. Haur eta gaztetxo asko eskola, aisialdi talde, edota udalek antolatzen dituzten ludoteketan parte hartzen ari dira. Irudian Hirukide ikastetxearen 3, 4 eta 5 urteko haurren ludotekako haurrak ikusi daitezke; 68 haur guztira. De-

nak Usabalgo igerilekura bidean daude; begiraleak patxadaz hartzen saiatzen dira, edozein ibilbide egiteko, motza izanda ere, lasatasunez hartu behar izaten dute eta. Tolosako Gazte Topaguneko Uda Gaztearen barruan ere, gaurkoan, kamisetak margotzeko tailerra egingo dute. R. CALVO

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Sanjoanetako balorazioa egiteko bilera gaur, 19:00etan Kultur Etxean.
- **Ibarra.** Ohiko osoko bilkura udaletxean 19:30ean.
- **Villabona.** Aizkardi mendi elkarteak Pirinioetara iteera antolatu du iganderako. Honako ibilbidea egingo dute: Canfranc-Collarada-Villanua. Larunbatean, 19:00etan, irtingo dira Olaederra kiroldegitik Villanua aldera eta bertan emango dute gaua. Hurrengo egunean irtingo dira Canfrancera, handik hasiko dutelarik ibilbidea. Izena emateko 649 717 182-ra deitu behar da 20:00etatik 22:00etara. Osteguna da izena emateko azken eguna.

ERAKUSKETAK

- **Ibarra.** Ikasturtean zehar egon diren tailerretan egindako lanak ikusi daitezke Kultur Etxean uztailearen 8a bitarte.
- **Tolosa.** Ikasturtean zehar egon diren kultur tailerretan egindako lanak Aranburu jauregian hilearen 9a bitarte.
- **Larraut.** Pisuak eta balantzak Ekomuseoan, iraila arte.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.



508 BERRIA

*Prestutasuna eta teknologia
Zirrara eta exigentzia
Sorkuntza Berriko berrikuntza*



*Ez bilatu gehiago,
Tolosa Motorren zure amesteko autoa daukagu,
508 Peugeot berria.*

TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-508

